

Komikiak eta zineak bat egingo dabe Igorreko zineklubean

12. orrialdea

"Besteena hartu eta berea egin daualako iraun dau Euskal Herriak"

Agate Deuna, Olentzero, Tartalo bera... gure ohitura eta mitologiaren jatorria Grezia edo Erroma dira askotan. Juan Manuel Etxebarria Deustuko irakasle eta etnolingustearen ustez, gure herriak iraun badau, gurea zaindu, baina baita be kanpokoa hartu eta berea egiten jakin izan daualako da. **12. eta 13. orrialdeak**



GI-era bide barri batetik, tontorrerako bidean da Alex Txikon

11. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

157

2012ko zezeilaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Inbersino gitxi aurreikusten da 2012rako

Bedia, Dima, Igorre eta Ubideko aurrekontuak onartuta dagoz eta beste herri gehienetan hileon onartutea espero dabe.

Okorrean, inbersino gitxi aurreikusten da. Izan be, Foru Aldundiko Udalkutxak diru gitxiago bananduko dau eta zergen bidez be, igazko antzera edo gitxiago jasotea espero dabe udal gehienetan. Diru propioak gastu arruntak pagetako baino askoz gehiago ez dau emoten, eta proiektuak diru laguntzen menpe dagoz aurrera atera ahal izateko.

Baina udalen artean desbardintasunak egon badagoz. Akaso aurre-

konturik estuena Dimakoa da. Izan be, hemen funtzionamentu gastua % 21 eta inbersinoak % 77 gitxituko dira, zorraren zati bat ordaindu ahal izateko. Bedian, barriz, % 16 igo da Udalak onartutako aurrekontuetako diru kopurua.

Igorren EAJ-PNVren kontrako bo- toakaz onartu ziran aurrekontuok. Beste batzuen artean, gizon eta andren arteko bardintasunerako politikak sustatzeko diru partidea eztabai- da iturri izan da. **5. 6. eta 7. orrialdeak**



Dimako Udala.

LEMOA

Cementoseko beharginak mobilizau dira

Enplegua erreguletao espedientea aurkeztu eban Cementos Lemonak eta ELA eta LABek deituta greba egin dabe beharginak urtailaren 25ean eta 30ean. Enpreseak lanpostuak eusteko soldadak ez igotea eta malgutasuna eskatzen dau. Langileak, barriz, erregulazino espedientea lanpostuak kenduko dituan enplegu plan bategaz doala salatuten dabe. **5. orrialdea**



ARRATIA

Aintzaldu daigun Agate Deuna...

Hilaren 4an, Agate Deunaren bezperan, Arratia, Ubide eta Zeberion koru ugari ibiliko dira auzoz auzo martiriaren omenezko koplak kantetan. Arratiako korua Bilbon be ibiliko da urtero moduan. Hurrengo egunean, Zeanuriko Santa Ageda ermitan mezea eta martirioa deskribiduten daben koplak abestuko dira. **7. orrialdea**

ekín s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOIAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 - Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

ARRATIA

Argentina eta Arratiakoaren artean hartu-emonak mantentzen dira

Necochea 10.000 km. baino gehiagora dago, baina bertako euskaldunen ondorengoak euskal kantak dakiez, euskal jantzak be bai, hemengo instrumentuak jotzen dabez, euskera ikasten dabilz, San Sebastian eta San Inaxio egunak ospatuten dabez, Euskal Astea egiten dabe... **8. eta 9. orrialdeak**



KANTU HERRIKOIAK

BERTSOTAN
ERRONKA

Zeanurin, gerra aurretik, antzezlanak plazaratuten ziran. Holango teatro batetan, personaje biren artean bertsotan desafio bat suertau zan

"... bietatik bata mozkortuta, baibenka, botila handi bet foltsan, da...".

(ziztrinak mozkortiari)

Hire etxian negarra ugari

berakazopa jateko,

hire hordi horren andria danak

nahikua zeregina dauko.

(mozkortiak erantzun) Zapata zahar da fraka ugertsu bargeta botoi bakua, halangon baten eroan guzta traperan batek atsua.

Gaur igurdien ikusiot nik gauza bat harrigarria, bere[n] kamaran artorik ez da gurerantza arratoia.

Txomor bat baino izin ez arren izin balirez hiru-lau gurera barik lotuko ziran gauzorregaz seguru nau.

Bertsotan erronka

Zortziko erritmoan

Hi - re e - txi - an ne - ga - rrau - ga - ri be - ra - ka -
zo - pa ja - te - ko, hi - rehor - di ho - rren an - dri - a
da - nak nahi - ku - a ze - re - gin dau - ko.

Iturria: Bitoria Artetxe Ziarrusta (Zeanuri 1914-2006).

1980an, Zeanurin, Gontzal Mendibilek jasoa.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**09:00etatik 22:00etara****Urtailearen 30etik zezeilaren 5era**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 6tik 12ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 13tik 19ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabertia, Maialen Egileor eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodríguez eta Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bilko Foru Aldaraldi
Deputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Lurmen



Urte batzuetan zemendiaren hasieratik edurra egiten dau; aurtengo neguan ez: edur gitxi ikusten da, mendi-puntetan be ez dago asko. Aldaketa klimatikoaren seinalea ete da? Zer da, baina, lurmena? Edurtza baten ostean edurra urtu eta gero, agirian gelditzen dan lur arloa. Batuaz, lurbeltz da, eta ahoskatuta, lúrmene esaten da.

ERETXIA

Harantza-honantza, hortik ez, ia ba handik



ENEKO IZA

Gorbeialde Irratiko arduraduna

Arratiako hedabideak gaitzat hartu eta eretxi artikulua idazteko eskatu eustenean, lehenengo eta behin pentsetan parau behar izan neban zenbat diran edo garan. Batzuek nik baino bizkorrago kontauko zituen baina ni bi eta hiruren artean parau nintzan. BEGITU eta Gorbeialde Irratia kontau ostean, Gure Artean aldizkariagaz dueda sortu jatan. Bai, ez? Bada, ez da?

Horregaz bueltaka nembilela bonbillea isiotu jatan, kosumogitxikoa zala be esan neikizue. Pentsau neban inoren ganean berbaz ibili barik norberarenean zentrau eta neure esperientzia kontauko nebala. Hemen ba:

Pasa dan urtailaren 22an bost urte bete zituan Gorbeialde Irratiak. Lehenengo eguneko emisinoa oindino buruan daukat, baita alkarizketea nori egin neutsan eta zer itaundu neutsan be. Preguntau egidazue ia orain aste pare batekoa eta akordurik be ez daukat. Orduko nerbio eta emozinoaren seinale.

Zenbat idea, proiektu eta asmo hasierako etapa haretan. Inoz uger egin barik itsaso zabalean uretzara saltu egitea izan zan eta ur apur bat iruntzi bagenduan be egundo ez dot euki haren damurik. Orduko egunetan beste, ez dakit inoz ikasiko dodan.

Bostetik ia hiru urte Unai Santosegaz egin nituan, aituko dozue nozean behin Larregi taldearen (abeslaria eta gitarristea da) abestiren bat ipini behar izatea. Hortik aparte gauza on asko Gorbeialde Irratiak beti eskertuko deutzazanak.

Edade guztietako jentea pasau da Gorbeialde Irratiko mikrofonoetatik. Bakotxa bere estiloagaz, lotseagaz edo lotsa barik, bildurragaz edo mundua jan beharrean, erantzun laburragaz edo berbaz dabizela haria galduten dabenak be bai. Batzuek errepetidu be egin dabe, eta ez baten. Badagoz baten batzuk hiru edo lau bider egon diranak eta bakotxean gai diferente batagaz gainera. Hori da meritua. Danoi eskertuten deusuet.

Hasierako idea, proiektu eta asmoak bete diran? Batzuek bai, besteak oindino ez. Kotxeari pasetan jakon antzean, gasoilak marka guztiak apurtuten dabilen egunotan, belozidadea bajatu egin behar izan dogu konsumoa be bajatuteko.

Beste guztia bardin mantenduten dogu. Ilusinoa, gogoa eta beharrean segiduteko ganea lehenengo eguneko berbera da. Gure eskuetan ez dagozanak ostera, diru kontuak eta beste gauza batzuk, ezin geinkez kontrolau eta hor hirugarren batzuek esan beharko dabe. Oraintxe artean gure ondoan egon diranai eskerak emon zelan ez.

Zuri zelan joatzu ba BEGITU?

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea Iuzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrean beharrez, euskeraz eginez

Enbatarean Batz en gaitu

LUMATUTEN**MAITE ARTABE****Mantak aukeran**

Goxoa dona ohe hotzean gorputz epela aurkitzea, gero! Eta gainera izan daikena epela berotu be egitea eta orduan txingarra lez gori gorputza eta sumenditik labak deslizea.

Izan daikena baina, epela epel beti eta labarik zer donan be ez bizitea.

Txarrago ondino

norbere goriari baldekada ur hotza botatea lakoa tokatu ezkeru ohekidea.

Holakoetan hobeto edredoi ederraren berotasuna.

Ta halanda guzti be berotu ezinik bahabil, manta elektrikoagaz, itzel. Gure donan kolore, tamaino eta formako mantak jagozana aukeran gainera.

Tere Irastorzari leidu ñeuntsanan behin:

*Negua bazetorren
jantzi dinat ohea,
badakin*

*hobe dun beti ere manta ona
amante txarra baino.*

ZERTZEAN**Arroz-esnea****ARITZ ARRIZABALAGA**

Hitz hura baloiekin lotzen zuela gogoratu du. Ez zuen aski datu beste esanahirik izan zezakeenik jakiteko. Beranduago jaso zuen beharrezko informazioa.

Afalordua zen, ongi gogoan du. Arroz-esnea postrean. Aita, ama, anaia nagusia eta bera. 10-11 urte izango zituen, ez gehiago. Koilaratxoek edalontzien kontra ateratzen zuten hotsa ari zen hizketan. Orduan esan zuen aitak. Arroz-esnearen azken koilarakada ahora sartu eta lehor bota zion anaia nagusiari. Harritu egin zen bera: baloiak bakarrik ikusi izan zituen hala. Ez zen posible baloia eta telefonoa parekatzea, ezin zuen telefonoa aire gabe irudikatu. Arretaz entzun zuen aitaren

ahotsik altxa gabeko errieta hura eta, zehar begiradaz, harrotasunez betetzen zuen anaia nagusiari luzatu zion babesa.

Hurrengo egunetan, lehenago baloiekin lotzen zuen hitz hura telefono ondoan baino ezin zuen kokatu. Telefonoa zen olgeta, ez baloia. Eseki eta entzuten jartzen zen. Urduritasunaren eta belduraren arteko zubian hitz batzuk isurtzen zituen aho erdi irekitik batzuetan; esaldiak besteetan anaiaren itzalak hanpatuta.

Bitxia iruditu zaio oroitzen hori une horretan izatea, gaitasuna izatea horretarako. Kontatuko dio anaiari arroz-esne bat hartuz, poltsaren hurrengo saiotik bizirik irteten bada.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Spanairrek porrot egin dau.

Krisi garaiak abiadura moteltzeko garaiak dira eta hegazkinen urrezko sasoia amaitzean dago. Aisialdian behintzat, azkar eta urrin joan beharrean, hur daukaguzan lekuak patxadaz gozatzeko momentuak izan daitezke. Bizitza presa barik dastatzeko aukerea hartzeako sasoia, antxina moduan.

Ez hori bakarrik, erabilten ez doguzan gauzak barriro erabilteko momentua ei da. "Berrerabili behar da", pentsauko eban seguruenik Zeanuriko Luis Arregik. Eta bere 92 urteko autoari dirdira atera eta hor ikusi dogu San Justorako kaminoan. Holango autoa izan ezkeru, egokia izateaz gainera, dotorea be bada. Eta zeanuriztarrak pasa dan mendeko dandy bat irudian.

Zinari eta Scott Fitzgerald-en nobelai esker, ezagutu doguz 1929ko New Yorkeko burtsaren krak-aren aurretik bizi izan ziran glamourrez betetako "urte zorionsuak". Mende honetan, akaso, barriro be soseguak emoten dauan dotoreziaz betetako urte zorionsuak biziteko aukerea izango dogu, burtsak jausi ostean eta desazelerazioari esker.

Batzuek bai, behintzat.



**Gorosti**
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igone-Bilakia
T. 94 631 50 39

Halegaitu Zentrua, 110
R.P.S. 25/06

begitu
arratia ubide zeberio

IGORRE

Zerbitzu guztiak mantendutena dabezan aurrekontuak onartu dira

Urtailaren 23ko osoko batzarrean onartu ziran Igorreko herriaren aurrekontu orokorrak.

Erredakzioa

Bilduk eta Igorre Danontzat herri plataformak babestu eben alkatetzaren proposamena eta EAJ-PNVk aurka bozkatu eban.

Aurrekontuok urrietan herrian zehar egindako auzo eta sektore batzarrak hasi eta Ogasun batzordean hainbat astetan landu ostean, urtailaren 23an eron zan osoko batzarrera alkatetzaren proposamena, guztira 4.164.000 euroko aurrekontua.

"Bizi dogun egoera ekonomikoa kontuan hartuz, onartu di-

ran aurrekontuetan Igorreko Udalak ez dau ezelango murrizketarik egingo orain arte emondako zerbitzuetan. Danak mantentzearen aldeko apustua egin dau Igorreko Udalak eta alkarte, erakunde zein ekintzatarako diru-laguntzak bere horretan jarraituko dabe" jakinarazo dau Igorreko Udalak prensa ohar batez.

Lan eskeintza sustatzeko zerbitzuak eta ekintzak martxan ipinteko diru partida bat onartu da. Inbersino sozialak, bardintasuna, ongizatea eta hirugarren adinekoentzako partidak mantendu dira.

Inbersinoetarako hasierako aurrekontuaren % 6,7 erabiliko dau Udalak, "auzoetako saneamentu sareak egin eta hobetzeko erabiliko da, eta Urkuzuko auzoan auzotar guztiak eskatutako eta beharrezkoa dan zebraidea be urte honetan egitea aurreikusita dago".

Bardintasunerako partida txikia Eztabaidagai izan da gizon eta andren arteko bardintasuna bultzatzeko diru partidea. Izan be, onartutako 10.000 euroak gitxitxo dira herriko Bardintasun Plana aurrera eramateko. Hala inoen PNVkoak prensan.

Dana dala, alkatetzak BEGITURI emondako informazioaren arabera, alkatetzaren proposamena 24.000 eurokoa izan zan, jeltza-leena 8.000 eurokoa eta Igorre Danontzat-ena 9.000 euro. Azkenean, esandako moduan 10.000 euro onartu ziran.

Beste partida batzuk aitatzearen, Gazteriarentzako, 27.500 euro proposatu eban alkatetzak eta 25.000 onartu ziran. Euske-arearen normalkuntzarako 30.500 onartu ziran eta alkatetzaren proposamena 34.000 eurokoa izan zan.



Igorreko Udala.

LEMOA

Mobilizazioak Cementosen

Erredakzioa

Cementos Lemonak eskutitza bidali eutsen beharginai porlanaren merkaduan egoera "sano gatxa" dala esanez, eta ekoizpena urte erdiz erdira jaitsi beharko dauala iragarri. Enpreseak, soldadak igoten ez badira eta langileak malgutasun handiagoa onartzen badabe beren lan baldintzetan enpleguari eutsiko deusala agindu dau.

Honen aurrean, ELA eta LABek deituta, greba egin eben hilaren 25 eta 30ean. Lemoako 123 beharginak, hau da danak, egin eben greba egun horreetan enpresearen enplegua erreguleteko espedientearen aurrean protesta egiteko. Izan be, enpresa komitearen arabera Cementos Lemonak etekin handiak izan ditu azkenengo hiru urteotan.

"Enpresa honek Madrileko ereduak apliketan ditu, hemengo lan baldintzak kaltetuz. Enplegu erregulatze espediente hau, gainera, lan postuak kenduko dituan enplegu plan bategaz doa" azaldu eutsan BEGITURI Aitor Garriga ELA sindikatukoak.

Alkarretaratzea Bilbon

Urtailaren 25ean, behargin guztiak greba egiteaz gainera, alkarretaratzea egin eben Bilbon, enpresearen bulegoen aurrean. Hurrengo barikuan, urtailaren 27an, zuzendaritzeagaz batzarra euki eben "baina ez da aurrerapausurik egin eta guk geureagaz jarraituko dogu" esan eban Garrigak.

Lemoako Udalak beharginen aldeko mozinoa aurkeztu dau zezeilaren 1ean.



Cementos Lemona.

DIMA

Zorrak eta krisiak baldintzatutako aurrekontuak onartu dira

Funtzionamentu gastuak % 21 eta inbersinoak % 77 gitxituko dira.



Dimako Udala.

Erredakzioa

Aurrekontu honeen arabera, 2012ko ekitaldiaren sarrera korron-

tea 1.246.649 eurokoa da, 2011ko aurrekontuetakoa baino %42,4 txikiagoa. Aurreikusitako gastuak be, 1.246.649 eurokoak dira,

2011koak baino 451.000 euro gitxiago. Aurrekontuak orekatuak izateko diru sarrerak eta gastuak bardinduten saiatu dira Dimako Udalean Bilduko botoakaz onartutako aurrekontuetan.

Likidautako azken ekitaldian, 2010ekoan, etxegintza eta obren gaineko zergan aurreikusita egoana 939.500 euro izan ziran, baina benetako sarrerea 44.162 eurokoa izan zan. "Gauza bera gertatu zan ondasun komunalen ustiapenean: aurreikusita egozan 162.000 euro eta bildutakoa 14.295 euro izan ziran. Urte bitan holan agertuten da. Beraz, antza danez aurrekontuak birribilduteko edo, handitu egin ziran partida batzuk. Aurreikuspena ez zan benetakoa. Guk, barriz, sarrera eta gastuen arteko orekara jo dogu"

dino Rafa Ugalde Dimako alkateak.

Miloe erdi gitxiago gastetako ajusteak egin dira

Gastuak ea miloe erdi gitxitzeko, funtzionamentu gastuak % 21 gitxitu dira eta inbersinoak % 77. "Funtzionamentu gastuak gitxitu arren, langileria gastuetarako aurreko ekitaldian baino 3.000 euro gehiago aurreikusi dira, gizarte segurantzegaz daukagun zorraren interesak ordainduteko" dino Ugaldek.

Inbersino bakarra Artaungo ur depositoa konpondutea izango da. Murriztu diran partidak Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko eta

transferentzia arruntetarako izan dira.

"Eukiko doguzan benetako gastuak sarrerak baino handiagoak dira. Gero tasak eta zergak sartu behar dira eta horregaz orekatu izan dogu aurrekontua. Hiru urtetan ez dira zergak igo eta igo behar doguz. Baina igoera progresiboa eta hobariak aplikau doguz. Honen filosofia, egoera ekonomiko hobean dagozanak gehiago aportetea eta egoera larrian dagozanai tasa hobariak lagundutea da" azaldu dau alkateak.

Zorra %5 jeitsi dabe

Bagilan egoan zorra guztira 2.439.315 eurokoa zan. Fakturretan miloe eta erdi euro pasatxo zor ziran eta gainontzekoa kredituetan. "Bagilaren 10a baino lehenagoko zor zaharretik, gu bagilaren 11n sartu ginan, ordaindu dogu 385.159 euro. Baina faktura barriak be sartu dira. Horreek kontuan hartuta, abenduaren 31n, zorra guztira 2.320.744 eurokoa zan. Beraz, 118.571 euro gitxitu dogu, % 4,86" azaldu deutso BEGITURI Ugaldek.

Zergak eta tasak igo egin

dabez modu progresiboan,

gehiago daukienak

gehiago aportetako

eta gitxiago daukienak

hobariak izateko

ARRATIA

Bardintasun politikak aktibetako Arratiako mankomunidadeak diru laguntzea eskatuko dau**Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateak jakitera emon dauanaren arabera, Gobernu Batzordeak ago batez onartu eban Emakunderi diru-laguntza bat eskatzea, jadanik onartuta egoan 2012rako aurrekontuetan jasota egoan lez, bardintasun-politikak planifikau, koordinau, martxan ipini eta aktibetako. Eskatuko dan diru laguntzea 30.000 eurokoa da.

Horrezaz gainera, mankomunidadea teknikari laguntzaile bat kontratatuko aukerea aztertzen dabil eta horretarako, jagokozan eta beharrezkoak diran eskeintzak eskatu dituala azaldu dau. Kontratazino hau egiten danean, laguntzaileak, mankomunidade-organoak berak eta bailarako udalak egin dabean ekimenak bideratu eta koordinauko dauz. "Alkateak eta mankomunidadea ados gagoz: legegintzaldi honetako lehentasunetako bat bardintasun-politiken gaineko lan koordinatua

da, eta, horretarako, baliabideak eta ekimenak erabili behar dira", azaldu dau Josune Gorospe mankomunidadeko presidentek.

Kamioia erosteko diru laguntzea

Ez da baina, mankomunidadeak eskatuko dauan diru laguntza bakarra. Izan be, Aldundiari hondakinak batzeako kamioi bat eskuratzeko diru laguntza eskatuko deutso. Honetarako, eskaerearen zenbatekoa 165.000 eurokoa da eta laguntzaren guztizkoa, % 50koa, mankomunidadeak emondako informazioaren arabera.

**Mankomunidadea.**

IGORRE

**Bertsolarien kartela.****Zezeilak 10ean bertso saioa****Ainhoa Duñabeitia**

Onintza Enbeitia eta Peio Ormazabal bertsolariak afaltzeko aukerea izango da zezeilaren 10ean Igorren.

Igorreko Lurrarin Gazte Asanbladak antolatutako lehen bertso afaria egingo da egun horretan. Afaria,

Igorreko Industrialdeko Ostargi Jatetxean izango da. Prezioa 25 eurokoa da, kopea eta kafea barne. Arrasti partean, poteotxo bat egingo da Igorreko tabernetatik bertsolarien laguntzeagaz.

Sarrerak Axular Herriko Tabernan, Kukuman, AZ Rugby Tabernan eta Gau Loran dagoz.

ZEBERIO

Bideak eta egoera larrietarako laguntzak hileon onartuko diran aurrekontuetan

Aurrekontuetarako herritarren kezka nagusiak batzean dauzan txosten bat egin dabe Zeberion.

**Zeberioko Udala.****Erredakzioa**

Aurrekontuetarako herritarren kezka nagusiak batzean dauzan txosten bat egin dabe Zeberion. Txosten horregaz eratu dabez aurrekontuak eta udal batzarrera eroan baino lehen herritarri aurkeztu eta honeen ekarpenak jasoko dituela dino Ana Belen Alberdi Zeberioko alkateak. Bideak, kamioia, garraioa eta egoera larrietan dagozan personentzako diru laguntzak dira txosten honetan agertzen diran kezka nagusiak. Miloe bat eta lahun mila euro inguruko diru kopurua daukie Zeberion herritarren beharizanak betetzeko.

Udalalde 21eko udal ekintzen barruan oinezkoentzako bide bat egitea dago. "Zeberion ez daukagu bide seguru eta patxadakorik, bizikletaz ibilteko edo paseo bat emoteko. Interesgarri ikusten zan bide bat egitea, Zeberio guztia zeharkatuko leukena" dino Alberdik.

Garraio zerbitzua be ez da ez nahikoa ez egokia, eta bide mantentze lanak eta auzo batzuetan argiak ipintek be agertuten dira aurrekontuaren zirraborroan. "Ikusita egoera ekonomikoa zein dan, gizarte laguntzarako partida bat ipintea be planteau da" dino alkateak.

Inbersino gitxi

Gastu arruntak kenduta ez jakiela diru askorik geratuko

inbersinoetarako dino alkateak eta diru laguntzen bidez espero dabe aurrera ateratea proiektu batzuk. Tartean, bideak egiteko azterketa bat enkargetea "alde batetik, errepidea ardatz nagusi lez hartuta bide bat egitea, baina beste batetik be, ze hori be agertu zan batzarretan, lehengo auzoak lotzean ebezan bideak berreskuratzea". Gainera, Lehendakaritza Saitetik espero daben laguntzeagaz espalo bat ipini gura dabe herrigunean, Sautuolabarraino.

Baliabide propioakaz, barriz, argiak ipiniko dabez hainbat auzotan eta geraleku egokiak.

Egoera larrian dagozentzat diru partida bat

Nahiz eta Eusko Jauraritzak eta Foru Aldundiak emon horretarako diru laguntzak eta udalak horreek kudeatu baino ez egin, "aurrekontuetan partida bat egongo da larritasun egoeraren bat ikusten bada, erabilteko. Ez da handia izango ze diru aldetik juxtu antzean gagoz, baina ahaleginduko gara hori eukiten. Horretarako orain arte euki doguzan gastu batzuk murriztuko doguz: protokolo gastuak eta ordezkatzeko gastuak. Gainera, bere momentuan udal batzar baten ebatzi zan zinegotzien ordainsariak eta talde politikoen ordainsariak jeistea %16. Diru hori benetan beharrezkoa dan beste gauza batzuetan erabiliko da, gizarte laguntzaren partidan" azaldu dau alkateak.

ZEBERIO

Garraio publikoa sustatu gura dau Udalak**Erredakzioa**

Zeberion garraioa publikoa hain da urria eta eskasa ezin dala auto barik bizi. Egoera hau konpondu guran dagoz udalekoak eta Iker Bergaretxe Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio Zuzendariagaz batzartuko dira konponbide bat topetako. Aurretik be bilera bat eginda daukie Aldundikoagaz helburu horregaz.

"Zeberio, Ugao eta Artearen artean dago eta garraioaren bitartez patxadazko lotura bat eukitea Ugao eta Arteagaz gura dogu. Horretarako, kontuan hartu behar dira herritarren beharizanak ordutegiari jagokonean. Beharizan eta ikasten dagozan ordutegiak, batez be" dino Ana Belen Alberdi Zeberioko alkateak.

Beharizan horreek dirala eta, Aldundikoari urtenbide bi planteau deusie Zeberioko Udalekoak. Epe ertain edo luzera, Ugaoko autobus eta trenakaz eta Arteako Arratia-rantzako autobusakaz lotzeako lan-zadera bat, eta epe laburrera, zerbitzuaren ordutegian aldaketa batzuk egitea, zeberiozarren ordutegietara egokitzeak. Azken hau, lortuko dabela pentsetan dau Alberdik.

Batzar Nagusietara eta talde politiko guztiai zuzendu deusela gaia dino alkateak, erakundeak inplikatuko.

DIMA

Plazan ez aparketako kanpaina abian**Erredakzioa**

Pibotak ipini ziran arren, jenteak herriko plazan aparketan dau. "Pibotak ipini genduzanean, jentea protestaka hasi zan eta pibotak bajatu genduzan, eta orain konzienziarino kanpaina hasi dogu, jenteak plaza erdian aparkau ez daian" azaldu deutso BEGURI Rafa Ugalde Dimako alkateak.

Horretarako txartel bi atera dabez "plaza erdian ez aparkatzea danon mesederako da" dino batek, eta "modu egokian aparkatzea danon mesederako da" dino besteak. Txarto aparkautako autoai zinegotziak horreetako papeltxo bat ipinten deutse. Kanpaina hau apirilera bitartean izango da.

Herriaren sarreran eta frontoian aparkalekuak dagoz.

ARRATIA

Makila hotsak gurean Agate Deunaren bezperan

Erredakzioa

Urtero lez, Arratiako koruak martiriaren koplak kantauko ditu Agate Deuna bezperan. Arratian Musika Eskolako koruagaz kantauko dabe. Bilbon be ibiliko dira korua sortu zanetik, orain dala 61 urte, egin daben moduan. Goizeko 08:30ean hasiko dira Areatzan eta ibilbidea egin ostean, Areatzan amaituko dabe 21:00ak inguruan.

Areatzatik Arantzazura, Dima, Lemoa eta Zornotzara joango dira koplak kantetan. "Zornotzan hamaiketako egingo dogu eta handik Begoñara joan eta Bilbotik ibiliko gara, Zazpi Kaleetan, kale Nagusian eta abar" azaldu deutso BEGITURI Joserra Ipiñazar korukoak.

Aurten, aldaketa txiker bat



Arratiako korukoak Lemoan.

egon da urteroko planean. Izan be, korukoak ez dabe bazkalduko Getxoko Tamarises jate-txean. "Lazkano familiak alokatu egin dau eta aurten obratan dago. Akaso, Arratiara bueltauko gara bazkaiten, baina oraindino ez dakigu" dino Ipiñazarrek.

Arrastian, Bilbon barriro, Guggenheim eta Bizkaia frontoian kantauko dabe arratiarrak. "San Mamesen kantetea be eskatu dogu, Athleticen partidua dago eta, baina momentuz ez dogu erantzunik jaso". Gero, Arratiara bueltau eta Arratiako Musika Eskolako koruagaz Bedia, Lemoa, Igorre, Artea, Zeanuri eta Areatzan kantauko dabe.

Ermitan gizonen korua

Zeanuriko Santa Ageda ermitan hurrengo domekan gizonen koruak kantetan dauzan koplak izena hartu dabe azken urteotan. Izan be, han kantetan diranak ez dira leku askotan kantetan eta santearen martirioa deskribiduten dabe.

Udalak gero kopautxo eskeintzen dau eta herri giroan ospatuten dabe zeanurizarrak eta bisitan joandakoak jai hau.

Gure eremuko herri guztietan, tradizino handiko beste koru batzuk, eskolako umeak, parrokietako koruak eta bestelako koadrilak ibiliko dira, makilak eskuan, koplak kantetan antxinako tradizinoari eutsiz.

BEDIA

Igaz baino aurrekontu handiagoak onartu dira

Erredakzioa

Bediako Udalak urtailaren 26ko Osoko Bilkuran, 2012ko aurrekontuak onartu zituan. Aurrekontuok 1.524.772 eurokoak dira, igaz baino %16 gehiago.

Zergak aldaketa handi barik mantenduten dirala eta Udalkubako diru sarrerak gitxitu egin dirala, baina diru laguntzai esker, aurten diru gehiago izango dabela azaldu dabe Udal iturriak. "Diru laguntzak Eroso-Ugarte eta Barroetaren artean oinezkoentzako bideak egiteko dira eta 436.000 euro inguru" jasoko ditu Udalak horretarako.

"Aurrekontu honeek, kultura, euskera, bardintasun, gazteria eta abarretako proiektu guztiak diseinatu edo aurrera erotea bideratzen dabe" dinoe Udaletik.

Udala egoera ekonomiko onean dagoala eta honek proiektu barriak ekiteko orduan daukan garrantzia azpimarratu dabe.



Bediako Udala.

UBIDE

Proiektu barri bako aurrekontuak

Erredakzioa

Ubideko aurrekontuak abenduan onartu ziran ago batez. Igaz baino diru gitxiago jasoten da aurrekontuetan, 275.000 euro inguru.

Aurrekontuak ez ditu proiektuak jasoten, baina horrek ez dau esan gura ez dala proiekturik egingo "zein diru laguntza eukiko dogun eta zein ez, ez dakigunez, ez doguz diru laguntza baten zain dagozan proiektuak aurrekontue-

tan sartu" azaldu deutso BEGITURI Joxan Pagola Ubideko alkateak.



Ubideko Udala.

ARRATIA

Aukerea egon arte ez da egingo Boroa- Igorre kaminoa

Erredakzioa

Igorre eta Boroa lotuteko kaminoa momentuz ez da egingo. Bizkaiko Foru Aldundiak hiru errepede erradialen lanak ez dirala esleituko

egoera ekonomikoak "horretarako aukerea emon arte" emon eban jakitera urtailaren 19an.

Momentuz bertan behera geratu diran kaminoak Ermuko sahiesbidea eta Ondarru-Markina eta Boroa-Igorre erradialak dira. Hiru errepede honek 400 milioe inguruko gastua suposatzen dabe Aldundiarentzat.

Boroa-Igorre kaminoaren helburua, egunean-egunean, Bilbotik datozen eta Arratiatik pasetan diran 15.000 ibilgailu inguruk Bedia eta Lemoako herriguneetan ez sartutea da.

DIMA

San Migel Txikiko kanpaia lapurtu dabe

Erredakzioa

Dimako San Migel Txikiko ermitearen kanpaia lapurtu dabela emon dau jakitera Arratiako Eleizeak. Urtilaren 15ean ikusi eban azkenengo aldiz kanpaia ermitan Patrizia Egaña aurtengo maiordomeak.

"Sinistu ezinik geratu zan abisau utsiensean: domekan ikusi eban eta aste barruan desagertuta" dinoe eleizako iturriak. Egañak Esteban Orbe parrokoagaz berba egin eta salaketea jarri eban Galdakaoko Ertzainetxean. Kanpaia ehun kilo inguruko ditu eta bronzetza da.

Zeanuriko San Juston be lapur-

tu eben kanpaia.

San Migel Txikik historia luzea

San Migel Txiki ermitea Olazabal kofradian dago. "Seguruenik, XVII. gizaldiaren hasieran eraiki eben; halanda bere, sarritan zaharbarritu dabe eraikina, azkenengoz 1985ean. Ermita lehenengoz, 1775eko dokumentuetan aiatzen da, Lamindaoko kofradiakoa zan sasoi haretan".

San Migel Txikik oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko estalkia ditu, bai eta erdipuntuko hiru arkuko eleizpe txikia bere. Kanpantorrea fatxada nagusiko arkuaren gainean dago.

**BIXER
TABERNA**
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazino elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**Bar Restaurante
Montero**
Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra
Zelala 19 - Arantzazu - 619 903 653

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
• Bobbi • Ray • Aranda
• AKK • Guisabter • Arandiga
• Guandeb • Leiz • Hassana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE
Autoeskola**
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Baleonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 23
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@coavn.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karnela euskaraz zein erdaraz
Gabe. 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxo 94 673 70 83
e-posta: unakau@coavn.net

ARGENTINA

Gu euskaldunak gara, Argentinakoak

Ikusi mendizaleak kantuaren beste bersino hau abestuten dabe Necochean. 1881ean sortu zanean Nekochea izena ipini eutsien, koronel baten omenez. Izan be, abizen nafarra da eta Enekoren Etxea esan gura dau. Enekorik ez dago han, baina euskal arbasodun asko bai eta danen bigarren etxea bihurtu da bertako Euskal Etxea.

Maialen Egileor

Hamar mila kilometro baino gehiagora dagoz, baina euskal kantuak dakiez, euskal jantzak be bai, hemengo instrumentuak jotzen dabez, euskerea ikasten dabilz, San Sebastian eta San Inaxio egunak ospatuten dabez, Euskal Astea egiten dabe... Urrin, baina era berean hur dagoz, edo hobeto esanda, gagoz.

Urte batzuk dira Arratia eta Necochea batuta dagozala. 2006an Iraia Atxutegi eta Olatz Elejabarrieta lermoaztarrak Hator Hona proiektuan apuntau eta Necocheako Euzko Etxera joan ziran trikitixa, txalaparta eta txistuko klaseak emoten. Hurrengo urtean Itziar Landajo eta Izaskun Intxaurbe zeanuriztarrak joan ziran eta 2010ean June Egileor lermoaztarrak.

Necocheako batzuk be egonak dira hemen. 2008an, hain zuzen be, 20 lagun inguru etorri ziran eta Euskal Herriko plazarik plaza ibili ziran jantzan egiten. Zeanurin eta Lemoan be egon ziran. Orain, uda honetan, euren gurasoak etorriko dira. Txikitatik erakutsi deutsee seme-alabai euskal kultura, baina ez dira inoz hemen egon. Euren ametsa etortea da eta azkenean beteko dabe.

Honezkero bete dabenak -eta zelan! gainera-, hemen bizi diran argentinarrak dira. Gehienak Hernanin dagoz eta euretako baten kasua aitatuteko modukoa da. Orain hamar urte baino gehiago,

**Euskal jantzak Necochean.**

Maite Bilbaori beka bat emon eutsien hango unibesidadean eta

Lazkaoko Maizpide barnetegira etorri zan euskerea ikasten. Orain,

Hernaniko Aek-ko irakasle da eta bere ikasleen artean Necocheako

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Larrea
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonia 94 631 55 08
Andra Mari Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aire tratatzeko sistemenak - Aire zurgitze zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbiztuak eta mantentze lanak
Igorriko Industriaketa, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
819 736 616
48143 Igorri Bokoia

ellauri
HOTELA
Natura zentzua
Landa Turismoa
Erregina Zerbiztuak
Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

expert **ARRATIA**
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

lagun bat dauka, Sebi Ustarroz.

Abizen euskaldunak daukiez danak: Zubillaga, Alustiza, Esnaola, Berestain, Etxebarria, Iburguen... Batzuk lehengusuak dira euren artean, beste batzuk lagunak bakarrik, baina danak batuten dira Euzko Etxean: Txoko Txikin musean jokatu, Trinketean esku pelotan, saloian jantza ensaioak egiten...

Zemendian bertan ospatu zan Euskal Astea eta ia 1.000 persona etorri ziran Argentinako bazter guztietatik, milaka kilometro eginda. Euskal herritar batzuk, tartean lau lemoaztar, horren testigu izan ginan. Gatxa da sinistutea hemetik hain urrin eta hainbeste urte beranduago, euskal zuztarrak bizirik irautea. Baina holan da, bai. Argentinakoak eta euskaldunak dira.



Necocheako Euzko Etxea.

Gatxa da sinistutea hemetik hain urrin eta hainbeste urte beranduago euskal zuztarrak bizirik irautea. Argentinakoak eta euskaldunak dira



Ikurriña eta Argentinako bandereagaz neska bi.

Txikitatik erakutsi deutsee seme-alabai euren kulturea, baina ez dira inoz hemen egon



Euskal Asteako ekitaldi bat.

Urrin, baina era berean hur dagoz, edo hobeto esanda, gagoz

Hator Hona, hator

Olatz Elejabarrieta

Bertan egoteko aukerea izan genduan askok ezin izango dogu errez ahaztu egonaldi ha.

Euskaldunok badaukaguz gure txokotxoak mundu zabalean, euskaldunak topau ahal doguzan guneak; gerra eta krisi latzen garaietan bertakoen arbasoak hara joan eta han egin eben bizimodua, beste batzuk gaur egun, onartu gura ez dogun arren, hona etorten diran bezala, bizimodu duin bat egin ahal izateko aukera bila.

Necochea, horrelako bat da. Bertan Argentinako Euskal Etxerik handienetarikoa dago, bai espazioagaitik eta bai lan egiterako orduan daukan indarragaitik. Uritik zehar be, hainbat euskaldun: taxistak, ostatuko langileak... topau geinkez. Benetan batzuetan lekuz kanpo itxi ahal zaituen esperientziak bizi ahal dozuz. Behin, taxi bat hartu eta lagun batezaz berbaz noala, euskalduna nintzala igarri eban taxi gidariak. Bapatean, euskeraz hitz batzuk esan eta euskal kantuak abesten hasi zan... surrealista benetan!

Hau izan da, Necochea, Argentinako Euskal Etxeen Euskal Aste Nazionala ospatzeko topalekua (beti be F.E.V.A.ren -Federación de Entidades Vasco Argetina- barruan dagozan Euskal Etxeak). Bertara Argentina osoko Euskal Etxeak hurreratzen dira, eta aste guztian zehar hainbat ekintza antolatzen dabez. Igaz, arratiaz bik txalaparteagaz emon geuntsan hasiera ospakizunari. Asteaz zehar berbaldiak, herri kirolak, gastronomia ikastaroak, jantzaldi itzelak (Drindotsen eskutik), sagardotegia, eta beste ekitaldi asko izan genduzan. Olatu berdea be haraino heldu zala esan behar dogu, zapi eta pin berdeak Euskal Etxe guztietan ikusi ahal izan genduzan.

Eurentzat urte osoan zehar egindako lana erakusteko eta ospatzeko modu bat da. Holan, jantza talde guztiak euren jantzak aurkeztuteko saioak egiten dabez, eta hau da asteako ekintzarik garrantzitsuenetakoa, antzokian zein plazan.

Hau guztiau, bertako partaideak ilusino eta esfortzu handiagaz egin daben lanaren ondorioa izan da. Baina nik, andrak, Comision de Damas-ek, egin daben lana gorapaitu gurako neuke. Bertatik bertara, aurretiko prestaketetan laguntzeko aukera izan neban eta andrak egin eben lana ikaragarri ona izan zala esan behar dot eta lan hori izan zala jaiaren arrakastearen arrazoia.

Ez da erreza bertan bizi izandako esperientzia eta momentu hunkigarri eta politak hemen idaztea eta jenteari azaltzea. Esan ahal dodan bakarra horretaz berba egiten dodan bakotxean uleak puntan ipini eta han dagozan argentinako euskaldun guztiak zoriandu eta besarkatzeko gooa sartzean jatala da.

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI	Tel.: 94 673 42 37 Faxa: 94 673 42 37 Igarre
Ikastola Arratia HI	Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI	Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI	Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igarre
Areatzako Herri Eskola	Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI	Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI	Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI	Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Berezilgoak, Hezkuntza zikloak

JANDONIZ

ragusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

Kendall Languages

- Trinity College Londonen azterketa ofizialerako matrikulea zabalik martiaren 23ra arte
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 behe - 48.140 Igarre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

FUTBOLA**Gero eta gatzago**Maialen Egileor

Lemoak burua altxau ezinik jarraituten dau ligan. Azkenengo partidua be galdu egin dau 2-0 Athleticen bigarren taldearen kontra. Holan ba, azkenaurreko da sailkapenean 13 puntugaz eta salbazinoa 10 puntura dauka, gero eta urrinago. Federazio Kopan, barriz, aurrera jarraituten dau eta final laurdenean Tudelano eukiko dau aurrez-aurre. Zezeilaren 1ean joaneko jokatu dabe, hantxe Tuteran, eta bueltakoa zezeilaren 9an izango da Lemoan. Horreetan partiduetan, baina, jokalaririk bat gixiagoko eukiko dau Barasoainek. Piette atzelaria Conquensera joan da. Lemoara etorri aurretik, Amurrioren eta La Muelan egon zan, bietan kobrau barik. Guztira, urte eta erdi egon da nomina bat ikusi barik eta

ezin izan dau gehiago jasan.

Arratiarrak lider

Arratiako mutilik bana bardindu dabe azkenengo jardunaldian Errigoitiren kontra, baina halanda be, lider izaten jarraituten dabe. Izan be, hau da bardindu daben laugarren partidua eta oraindino ez dabe bat bera be galdu. Neskak be ezin hobeto dabiz. Partidu bakarra galdu dabe oraintxe arte, bi bardindu dabez eta beste guztiak irabazi, azkena 4-0ko emoi-tezagaz Ugeragaren aurka.

**Lemoa.****PELOTEA****B txapelketako finala Areatzan**Eredakzinoa

Urtilaren 21ean jokatu zan Arratia-Nerbioi E txapelketako finalerdietako bat. Hurrengoa zezeilaren 12an jokatu da Zaratamon. Momentuz, Arratiatik finalerako Lemoako eskolea sailkatu da gaztetxoak eta kadeteak kategorietan. Finala hilaren

18an izango da Orozkon.

B txapelketako finala Areatzan izango da hilaren 11n. Txapelketa honetako finalerdiak jokatu dira eta finalera sailkatu diran arratiar bakarrak Dimako gaztetxoak izan dira.

Dima Bko bikotea, Lur Ziarrusta eta Iker Akesolo, Orozko B taldearen kontra neurtuko da.

ERRUGBIA**Zekorrak porrot egin eben**

Igoera faseko hirugarren partidua galdu eben Zekorrak Elorrioren.

Ainhoa Duñabeitia

Azken minutura arte ez zan egon bat be argi nok eroango ebezan puntuak etxera, baina 18-15 izan zan azken emoitzea eta Arratiakoak galdu egin eben Elorrioren kontra.

Gogor ibili ziran talde biak, za-

leen ohiuak entzuten ziran, arratiarren azken entsegua etxoten. Urtaileko azken astegoienean ez dabe partidurik jokatu eta hurrengoa etxean jokatu dabe, Gezalako San Txismen hain zuzen be.

Kadeteen ligea be aurrera doa eta azken postuetan jarraitzen dabe gazteak. Aurreneko aste-

goienean Getxon jokatu eta galdu egin eben, 47-5. Urtilaren 28an, San Txismen jokatu dabe La Unica Errioxarren kontra. Partidu hau be galdu egin dabe zekortxoak.

Neskak entrenetan jarraituten dabe, eta taldea apurka-apurka handitzen doala esan geinke.

**Arratiako Zekorrak San Txisme zelaian partidu baten.**

ZEKUTZE
JATETxea

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - BIZKAIA
Tel.: 94 631 52 83
zekutzetxe@netmail.com

indar
Instalazio elektrikoak

Bidosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es ■ www.indarsi.es

CERRO ERAIKUNTZAK

Behoko suetan, harrietan,
azulejoetan... aditua.

Tel: 605 71 64 17
Erreforma orokorrak

Dia %

PEDRO AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Nagari) Tel.: 94 630 48 94

Esposizinoa eta fabrika Lemoan

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

KINMI KOPIDENDA MAIONE RAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE
BIZKAIA
Tlf: 94 612 02 41
Fax: 94 612 02 46
kinmikopi@gmail.com

AKEITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONSTRUETAN
ONDARUN BEGIZTANEN
ASIGURUETAN

Sabino Arana, 3-34 48141 Dima - Fax: 94 673 94 01 - 4016 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a
Igorre 48140 Bizkaia

Tel: 94 673 70 87
Tel: 609 79 40 54

axular
KULTUR ERKUNTZA

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASORIKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Anatia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

MENDIA

Gasherbrum I-eko lehenengo kanpalekura heltzear dago Alex Txikon

Aurrera doaz Txikon, Göschl eta Suarez Gasherbrum I neguan eta hegoaldeko paretatik igoteko helburua aurten lortu guran.

Erredakzioa

Sei mila metrora dagozala da daukagun azkenengo barria eta hotz handiak sufriduten: 25 eta 30 gradu zero azpitik. Dana dala, animoari eusten deustie eta apurka-apurka gorago doaz bide barria zabaltzen G-len.

Urtailaren 21ean Alex Txikon eta bere ekipoa (Gerfried Göschl eta Carlos Suarez) oinarritzko kanpalekura heldu ziran. Eta

hau idazten dogunean, seguru asko lehenengo kanpalekura be helduko ziran, horren barri ez daukagun arren. Alex Txikonen blogak azken sarreran lehenengo kanpalekuaren "soka baten distantziara" geratu zirala inoan urtailaren 29an eta. Lehenengo kanpalekua 6.200 m.tara dago. Hego paretatik eta neguan bidea zabaltzen saiatu zan Txikon igaz be, baina ez eban tontorra zapaldu.



Alex Txikon.

AIZKOREA

Semifinalera bidean Atutxa eta Azurmendi

Irati Urien

Aitzol Atutxa, aizkolari dimoztarrak, eta Iñaki Azurmendik XI. Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako finalerdietarako pasea jokatu dabe zezeilaren 4an, zapatuan. Arabako Alegria-Dulantzi herrian burutuko da final laurdenetako neurketea. Aurkari lez Donato eta Oihan Larretxea nafarrak eukiko dabez eta bikote irabazlea finalerdietarako sailkatuko da. Finalerdietan egongo diran beste hiru bikoteak Azpilikueta-Erasun, Otaegi-Otaño eta Arrospide-Mugertza II.a dira. Gauzak holan, laugarren eta azkenengo aizkolari parean nor dan jakitea baino ez da falta.



Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza
estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

indar

instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

ERAKUSKETE

"Biladi Hadi, hamaika begirada Palestinari, Euskal Herritik" Igorren**Erredakzioa**

Zezeilaren 13tik 27ra egongo da izenburu honen pean erakusketea Igorren Kultur Etxean.

Biladi Hadi hamaika begirada Palestinari, Euskal Herritik izeneko liburua eta diskoa, Biladi Hadi alkartasun brigadak Euskal Herriko hainbat sektoretako hamarnaka pertsonagaz batera hilabeteetan garatutako proiektua da.

Biladi Hadi 2010ko garagarrian eta urri lehenengoan Palestinan izandako alkartasun brigada da, kulturgintzan eta bestelako eremuetan beharrezko dabizana euskal herritarren osotua: musikariak, kazetariak, pailazoak, bertsolariak, zinemagileak,

eta ikasleak, besteak beste. Palestinaren egoeraren nondik norakoak erakustez gainera, Biladi Hadi brigadako lagunak ateratako argazkiak eta argazki honeei ipinitako berbak be biltzean ditu lan honek.

Lan horretan biltzean diran argazkien erakusketea izango da Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.



Erakusketaren irudia.

ZINE KLUBA

Komikiak eta zineak bat egingo dabe Igorren**Erredakzioa**

Komiki moduan sortutako istorioetan oinarritutako pelikulak ekarriko ditu Igorren zineklubak zezeilaren hiru egunetan: 9an, 16an eta 23an, hain zuzen be. *American Splendor*, *Maria y yo* eta *Persepolis* dira aukeratu dituen pelikulak. Betiko moduan, ondo merke gainera, 2,5 euro balio dau saio bakotzak edo sei euro hiru filmak ikusteko bonoak. Saio guztiak arrastiko zoztoretan izango dira.

American Splendor

Shari Springer Berman eta Robert Pulcinik 2003 urtean zuzendu eban pelikula hau Estatu Batuetan.

Harvey, Cleveland-eko ospitaleko langilea da. Egunerokotasunetik iges egiteko daukan bide bakarra bere lankideakaz musikea, amerikar kulturearen gainbehera, karamelu zapore edo bizitzaren gainean eztaba-datzea da. Kasualidadez, Robert Crumb ezagutzen dau eta, urte batzuk beranduago, Crumb ospetsua egiten danean bere komiki *underground*ai esker, Harvey komikia helduentzako adierazpide artistikoa izan daitekeela konturatu eta bere tira komiko proiektuak idazten hasten da.

Maria y yo

Dokumental hau Felix Fernandez de Castrok zuzendu eban 2010ean eta Migel Gallardoren izan bereko nobela grafikoaren (2008ko Komikiaren Sari Nazionala) egokitzapena da. Bertan, Migel berak eta bere alaba Mariak Kanarietara egindako bidaia baten izandako bizipenak kontatu dira. Kanarietan pasatutako udako azken egun honeetan, aita eta bere alaba autistaren eguneroko hartu-emonak azaltzen dira.

Persepolis

Azkenekoa, Frantzia eta Estatu Batuetako koproduktzio bat da, Vicent Paronnaud eta Marjane Satrapiren zuzendaritzapean 2007 urtean egindakoa. Bertan, Persepolis neska iraniar baten istorioa kontatzen da, iraultza islamiarretik gaur egunera arte. Istoria, fundamentalistak poterrera iritsi, andrak beloa jartzera behartu eta milaka pertsona espetxeratzen dituzten hasten da. Protagonistea oso azkarra eta *punka* da eta ABBA eta Iron Maiden deskubriduten ditu Iran eta Irak arteko gerra bizitzen dauan artean. Nerabezarotan Europara bidaltzen dabe. Hemen, beste kultura batzuk bereagaz aldatutako aukera izango dau.

ALKARRIZKETE

Juan Manuel Etxebarria: "Geurea egin doguna, geurea be bada"

Harrigarria da Euskal Herrian, Agate Deuna Siziliako martiriak daukan predikamentua.

Urtero-urtero, koruz betetzen dira bazter guztiak santearen omenezko koplak kantetako.

Abots askotara zein abots bakarrera, makilakaz zein makila barik, laupabost letretako erreperitorioagaz zein erreperitorio luzeagaz, dirua beharizan bat daukienai emoteko, afari bat egiteko edo ermitaren bat konponduteko, ugari dira santa eskean ibiltzen diran arratiarrak.

Kristautasunari lotutako mitoak zelan egin doguzan hain geureak ulertuteko Juan Manuel Etxebarria (Zeberio, 1948) irakaslearengana jo dogu.

Erredakzioa**Zeri deitzen deutsagu "geurea"? Zerk egiten gaitu euskaldun?**

Hizkuntzak berak eta gure kulturak. Kulturarako tresnak, sinboloak -eta horreen artean hizkuntza- eta baloreak sortu ditu gizakiak. Hori kultiboori inportantea da, baina geure nortasuna galdu barik. Horixe da sekretua.

Eta zein da gure nortasuna?

Euskereaz gainera, hor daukaguz gure tradizioak, gure mitologia, gure sineskerak, biziteko modua, geografia, lurra, pentsetako modua, gure erreferentziak, esaera mundua...

Geure tradizioak kristautasunaren iturrietatik edaten dau askotan.

Euskal Herria herri txikia eta zaharra da. Guk eragin asko euki doguz kanpotik. Eta nire ustez, iraun badogu, eta hau da nire tesia, guk gurea zaindu egin dogulako da, baina baita be, behar izan dogunean kanpokoa be hartu eta geurea egin dogu-

lako. Barandiaranek esaten eban moduan, geurea egin badogu, geurea be bada.

Horixe gertatzen da, santa Agedagaz be. Santa Ageda antinakoa dogu. 251ko zezeilaren 5ean martirizau eban beste martiri askoren moduan. Euskal Herria santuz bete jakun. Gure santoral handia eta zabala da, baina kontuan hartzeakoa da zenbat santu eta santa daukagun urtea hasi eta udabarria heldu arte. Izan be, epoka hori, mundu erromanikoan, karnabal edo aratoste edo inauteriaz lotuta dago udabariaren etorre-rea ospatzeko eta kristauarok bere estrato kulturala jarri eban aurreko siniskera edota ohituraren gainean. Dana dala, Santa Agedaren ohitura geure-geurea egin dogu eta Arratiako koruagaz geureago.

Zuk dinozu mitoak sortzean dirala aro bat aldatzean, kristautasunera pasetean, euskal mitologia edo gure tradizioen zati handi bat sortu zan. Kristau aroko au-

rretiko mitorik badago?

Adibidez, Tartaloren ipuina. Hori Polifemo da Odiseakoa. Guk Tartalo bezala ezagutzen dogu, ipuin hori geurea egin dogulako. Jenteak esango deutsu Tartalo Maurilegorren egoten zala edo ez dakit nongo kobazuloan. Atzo bertan, batek "bai, horreek begibakarrak hemen egoten ziran kobatan" esan eustan Usansolon. Geurea egin dogu mito hori eta persona horrek ez daki Odisea zer dan.

Tartalo, grekoz, Tartaroa zan Hades infernua. Eta Tartaroan bizi ziran ziklopeak, begibakarrak. Eta guk mitoa izenagaz hartu dogu. Geurea egin dogu ipuina eta, gainera, barianteakaz, ze nik ipuina batu dot herrian, datu gehiago eta diferenteakaz.

Baina kanpokoa geure egite horretan ez dagoz bakarrik mito eta ohiturak, hizkuntzak be bizi izan dau prozesu hori, kanpoko eragina jaso geure-geurea dan zerbait sortzeako.

Goazen hizkuntza mundura.



Juan Manuel Etxebarria.

Euskeraz oso aditz gitxi euki doguz. Hasi kontetan zenbat aditz dagozan e/i hasieran eta i/n amaieran daukienak. Oso gitxi: egin, joan, etorri, ibili... zer gertatzen da? Erromaren eraginagaitik, latinezko "tus" horrek s galdu, tu hartzean dogu eta goizetik gauera, sustantibo guztiak aditz bihurtzen dira: handi- handitu; apur-apurtu...

Geurea egin dogu eta eskerrak horrerri eta beste mailegu askori, gaur egun kapaz gara hemen euskeraz irakasteko. Baina geure nortasuna ez dogu galdu eta hori kontuan izan behar dogu etorkizunera begira.

Kristautasuneko mitoetara bueltauz, Gabonak aldean Olentzeroren mitoaren erabilerearen gaineko zeure kezka azaldu zenduan prensan.

Gure sasoiara eta bizimodura egokitu bai, baina ezin da edozein modutara mitoa aldatu.

Olentzeroren historia dator oso ondo kontautu Jose Migel Barandiarren *Obras Completas*-en lehenengo tomoan, *Diccionario ilustrado de mitología vasca* edo holango titulu bat dauka. Eta azkenengo orrian Epilogoan "Kixmi o el caso de los dioses" dago. Hor dago Jasota Olentzeroren mitoa.

Honen arabera, jentilak ospatzen egozan solstizioa Aralar mendian eta orduan han agertu zan argi berezi bat. Jentilak ez ekien zer zan eta itaun egiten

deutsie Jentil Zaharrari eta berak esaten deutse begia zabaltzeko ikusteko. Eta orduan berak ikusten dau argia eta esaten dau "Kix jaioa da" hau da, "etorri da kristau aroa eta gureak egin dau" eta bota gura dau bere burua, eta bota egiten dabe trokara.

Troka hori dago Aralarren azpian eta Arrastaran izena dauka. Bailaratxo bat da eta han dago jentilen harria. Harri batek estaldu zituan danak, bera eta bere atzean beste jentil guztiak, eta harri hori han dago Jentil Harri dauka izena eta Barandiaranek hori eskabau egin eban Aranzadigaz.

Hau mitoa ezagututa, ikusten da Olentzero izenez ezagutzen dana kristau aurreko azkenengo personajea dala. Herriak ez bada daki datu historiko edo zientifiko bat, mito bat sortzean dau hori espliketako. Horrerri etiologia deitzean jako. Espliketako modu bat da.

Hau da zelan sartu zan kristautasuna espliketako sortu zan.

Horixe. Mundu zaharrea, hasieran beti dago mitoa. Egiptoko historia ikusten badozu, edo Erromakoa edo Bizkaikoa bera, atzera jo ezker, danak mitotik hasten dira: Bizkaian Jaun Zuria; Egipton, Isis eta Osiris; Erroman, Romulo eta Remo... hasiera bat topetako helburua daukie. Biblian, Adan eta Eva. Hori da espliketako modu bat. Eta gero datu historikoa datorrenean, datu historikoa gailentzen da.

BERTSO SAIOA

Futbol lartxo Zeanuriko bertso saioan

Erredakzioa



Maialen Lujanbio.

kai euskeran defendatzen eta Elortza durangarra Giupuzkoaren alde gipuzkeraz egiten izan zan. Eta polito moldatu ziran biak "bertsotarako balio ez dauan" bestearen berbakeran.

Publikoaren gustukoa be izan zan Zeanuriko bertso saioan klasiko bihurtu dan, Arratiako berbak erabilteko probea. Bertsolariak ez ekien berba horreen esangurea, publikoak batzuetan bai eta beste batzuetan ez, baina modu berezian inplikau zan. Txuzoa, zirkirioa, ailegoa, auskera, kurruilua eta eguzki txangorie zer ziran asmatzen saiatu ziran bertsolariak.

Aitatzekoa be bada, bertso saio baterako sano originala

dan proba bat. Amets Arzallusek baloiari tokeak emon bitartean, Andoni Egañak, mikroa eskuan, bertsoak parau barik *seguidilla* botatzen jardun eban. Zeanurin egon beharrean Bronx-en egon izan bagina, honeri *rap* deituko geunskio.

Gai serioagoak be landu ziran, independentzia, edo ume lapurtuak berbarako, eta beste joko eta proba asko be gainditu zituen bertsolariak. Izan be, bertsozaleak gero eta ugariagoak dira eta bertsoak kantetako moduak be bai. Horixe ikusi zan Zeanuriko bertso eskolak antolatatu eta Eñaut Intxaurregak gidatutako urtaileko VIII. bertso saio honetan.



Egaña seguidilla abesten Arzallus peloteagaz olgetan dala.

DUNBA

Bidean Galduta taldeak lehenengo maketea kaleratu dau



Bidean Galduta.

Arratia Institututuko ikasleak

Bidean Galduta musika taldeak lehenengo maketea kaleratu dau

urtaileko azken astean. Igorretar eta lemoaztar gazte honeen eskutik heldu barri jakun diskoa, 2011ko urri bigarren eta zemen-

dia bitartean grabau eta nahastu eben Ugaoko Geure Gogoa Grabaketa estudioan, Iñaki Esparza teknikariaren gidaritzapean.

Lehenengo aldiz sartu da Bidean Galduta grabaketa estudioa eta sei abestiz osotutako diskoa egin dabe. Abestien izenburuak honeek dira: *Aurpegi bi*, *Mundu berri bat*, *Modua*, *Jakin barik*, *Zure erantzuna* eta *Galdera hori*. Rock estiloa aintzat hartzean daben abestiak dira, euskeraz abestuak eta freskotasun ukitua nabari jakie.

Emoitzeagaz gustura geratu dirala jakinarazo deuskue taldeko partaideak, eta baita grabaketa prozesuan izandako urduritasun eta segurtasunik ezak. Dana dala rockaren adar asko jorratzen dituan diskoa dala esan dabe. Melodia itsaskorretatik pasata gordin-



Bidean Galduta taldeak

6 abestiz osotutako

diskoa egin dau

tasunera, abesti lasaietatik pasauz.

Maketea urtaileko azken aurreko astetik dago salgai, eta 5 euroren truke lortu daiteke. Arratiako leku honeetan dago erosteko aukerea: Igorreko Herriko Tabernan, Dimako Herriko Tabernan eta Lemoako Gaztetxean. Dana dala, gura izan ezkerre helbide elektronikoz egin daiteke eskakizuna (bideangalduta@hotmail.com) edota hurrengo telefonoetara deituta: 647 933 582 (Jokin) eta 697 806 790 (Endika).

AGENDEA

ZEZEILAK 1 BEDIA

17:00etatik 20:00etara, argazki erakusketea 2011ko bigarren sei hilekoan egindako jarduerak, liburutegian. Hilaren 10era arte.

ZEZEILAK 3 DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

ZEZEILAK 4 AREATZA

18:00etan, Agate Deuna bezperako kanta kalejireia herritik zehar herriko plazatik abiatuta. 20:00etan, plazan txokolatea eta bizkotxoak. 21:00etan, Arratiako korauek plazan amaituko dau kantaldia herriko jenteezagaz batera Agate Deuna kantetan.

ARTEA

17:00etan plazan batu auzoz auzo kantetan joateko. 19:00etan txokolatea. 20:15ean, Arratiako korauek eta Arratiako Musika Eskolakoak Agate Deunaren koplak kantauko ditue.

BEDIA

17:00etan, plazan batu auzoz auzo joateko koplak kantetan. 19:15ean, Arratiako korauek eta Arratiako Musika Eskolakoak Agate Deunaren koplak kantauko ditue.

IGORRE

20:00etan, Arratiako korauek eta Arratiako Musika Eskolakoak Agate Deunaren koplak kantauko ditue.

22:00etan, zinea *Un dios salvaje* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, Agate Deuna bezperako kanta kalejireia Lemoatik udalxetik urtenda. Arratiako korauek 10:00etan eta 19:30ean Elizondan. Salda eta txorizoa parte hartzaileentzat.



Arratoitxo pinpirina Igorreko Kultur Etxean hilaren 3an

Glu Glu produktzioaren eskutik *Arratoitxo pinpirina* 3tik 9 urte bitarteko umeentzat zuzendutako antzezlanak ikusgai egongo da hilaren 3an, zapatua, arrastiko 17:30ean.

Arratoitxo pinpirinak izugarri maite ditu soineko dotoreak eta zapata barriak. Horregaitik, urrezko txanpon bat topetan dauanean bere ametsa egia bihurtuko dala konturatzen da: gura beste jantzi erosi ahal izango ditu. Baina diruak izaki maltzurak erakarriko ditu eta diruagaitik bakarrik ezkondu gura izango dabe beragaz. *Arratoitxo pinpirina* ipuin klasikoaren moldaketa kantak, jantzak eta komedia nagusi dituan antzezlana musikala da.

UBIDE

17:00etan plazatik urtenda koplak kantetan. Ostein afaria.

ZEANURI

20:30ean, Arratiako korauek eta Arratiako Musika Eskolakoak Agate Deuna kantetan.

ZEBERIO

10:00etatik 15:00etara, Agate Deuna kantauko auzorik auzo baserriar jantzia.

15:00etan, bazkaria.

ZEZEILAK 5 IGORRE

17:00etan, umeentzako *La gran aventura de Winter el delfin*. 19:30ean, *Un dios salvaje* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

12:00etan, mezea Santa Ageda ermitan.

ZEZEILAK 7 ZEBERIO

18:00etan, herritarren partaidetza foroa udalxetik.

ZEZEILAK 9 IGORRE

20:00etan, zinekluba: komikia. *American Splendor* Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 10 IGORRE

22:00etan, Lurrarin Gazte Asanbladak antolatuta, bertso afaria Ostargi jatetxean. Onintza Enbeita eta Peio Ormazabal.

LEMOA

Ganzabal mendi taldeak hilaren 12ra arte, mendiko eskia Pirineotan. Petrchema (2.366 m.) Chipeta (2.189 m.).

ZEZEILAK 11 AREATZA

Arratia-Nerbioi B Txapelketako finala. **IGORRE**

22:00etan, zinea *Drive* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Austarri mendi taldeak antolatuta Eriz Magoa.

ZEZEILAK 12 ARTEA

Artea Kirol Kultur eta Euskara Taldeak antolatuta Kanporamartxo.

BEDIA

Ganguren mendi taldeak antolatuta, Kanporamartxo umeen urteera.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Happy Feet 2*. 19:30ean, zinea *Drive* Lasarte Aretoan.

UBIDE

Amexier mendi taldeak Ubide-Arralde-Arimekorta-Ubide.

ZEBERIO

08:00etan plazan, Austarri Mendi Taldeak Kanporamartxo Trianora.

ZEZEILAK 13 IGORRE

Hilaren 27ra arte, *Biladi Hadi, hamaika begirada Palestinari Euskal Herritik* erakusketea. Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

BEDIA

19:00etan, jaietarako lehenengo batzarra eskoletan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU ROMER DUO PLUS-ISOFIX SALGAI

Grupo 1 (9/18 Kg). 2. eskuo autorako umeen segurtasun aukia. Grisa/baltza. 200 €. Egoera oso ona (merkaduan 400 €). 626 385 581.

DANERIK AURREKUA IKASI GURA DOT

Aurrekuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

GARAJEA ALOKAIRUAN

Igorreko Bidebarri kalean 6-7 zenbakietan garajea alokairuan. Interesdunak deitu: 615 731 182 telefonora.

ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Babilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

SENEGAL BIZIKLETAZ ASTE SANTUAN

Pedaleatzen Afrika Beltza ezagutzeko. Alforjakaz zikloturismoan zaleak diranentzako. Martiaren 31tik apirilaren 15era. Eguneko 45 km. Programa aktiboak 1.250 €. Hegaldia norberaren kontura. Info+: xauenbidaia@gmail.com edo www.xauenbidaia.com.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

SUKALDARI BILA

Axular Herriko Taberna sukaldaria behar da astegoienerako. Izena 94 673 70 92 telefonon edo barran emon zezelak 15a baino lehen.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Udalak emondako bina sarrera *Arratoitxo pinpirina* antzezlenerako.

Izaskun Soloeta (Igorre)
Aitziber Gondra (Bilbo)



2 Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.


Malgorzata Ziemkiewicz (London)
Jose Ramon Zubizarreta (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU





EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Persona izenordaina. Aurreko urtean. 2.- Oste. Otoz..., ezustean. 3.- Lastargi. Erbioa. 4.- Bat erromatar. Azagari. 5.- Ohean ipinten da. 6.- Askabide. Bokala. 7.- Parea. Eskapan. 8.- Euzko Langileen Alkartasuna. Urtaro bat. 9.- Karraka. Txarra ez dana.

GOITIK BEHERA


1.- Gatz lar. Baltzune. 2.- Barre eta pozezko zantzo alai. Joan-etorri. 3.- Epotx. Amerizioa. 4.- Erdiko bokala. Natura. Bokala. 5.- Birritan, asmo. Laztan. 6.- Urten. Ala. 7.- Abagune. Kontau.

Topau ondoko berbakaz lotuta dagozan izenak: Bolivar, Marx, Lincoln, De Arco, Polo, Hitler eta Gagarin.



AKI MI KO

Igor Menika



Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

bbk =

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (BIKAMA)
Tel. 94 631 72 56

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde
Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

 Helbidea

 Telefonoa E-posta
 Kontu korronteko 20 digitoak

 Urteko kuota aukeratu:
 35€ 55€ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48142 Artea

IÑAKI SAENZ DE LA FUENTE

"Madriletik turismoa bultzatzeko hitzarmenak eta proiektuak ekarri doguz"

Fitur, Nazinoarteko Turismo Azokan saria irabazi dau Gorbeia Central Parkek, Gorbeialderen turismoaren aldeko ekimenaren produktuak. Bertan, Gorbeia inguruan egin daitezkean esperientziak batzean dira (artze lanetan ibili, izarren argipean afaldu...). Sari honek eragin handia izan ahal dau gure inguruko turismoaren sustapenean, turismo enpresa eta touroperadore inportanteenak han egon diralako. Saria jaso, hitzarmenak egin eta proiektuz beteta etorri da Madriletik Iñaki Saenz de la Fuente turismo kudeaketa teknikaria.

Erredakzinoa**Gorbeia mundura erakusten, egon zarie orduan, ez?**

Bai. Bizkaia eta Euskadi erakusleku egon gara aurten. Guk beti presentzia euki dogu Fiturren, baina aurten, jakina, askoz be inportanteagoa izan da. Bilbao-Bizkaia be joan da aurten erakusleku batez eta eurekaz egon gara Fiturren.

Gorbeia beti egon da Bizkaiko materialetan eta foiletoetan, sustapen ekintza izan da beti. Baina aurten, beste plangintza batez joan gara. Ez bakarrik promozinoa, kontaktuak egiten eta hartu-emonetan hasi gara

touroperadore agentzia eta operadore turistikoakaz, eurekaz aurrekontuak atera eta hitzarmenak egiteko asmoz. Hau da, merkaturatzeko prozesuak zabalteko.

Horretarako bultzada handia izango da saria, ez? Touroperadoreen atentzinoa erakarteko balioko eban.

Bai, saria horretarakoxe da, ez dago dirurik atzean: arlo honetako profesionalak produktua erreferentzia lez hartzeako, hain zuzen be.

Ze enpresak agertu dabe interes Gorbeia Central Park produktuan?

Touroperadore batzuk. Egon gara Halcon Bidaia-egaz baina baita

Booking, Rusticae eta Ruralcagaz ostatu hitzarmenak pentsetan egon gara. Groupalian be egon gara deskontuak egiten hasi diran enpresakaz, baina horreekaz gauza guztiak aztertu behar dira, ze holango estrategia zabalteaz... ikusi egin behar dogu. Gero Erreserbagunegaz be egon gara, eta Euskal Herrira jentea ekarten daben agentziakaz. Azken finean, eurak Euskadin zehar ibilbideak daukiez eta gu hor barruan egoteko eurekaz hasi gara lanean.

Lehenengo sektorerako launtza izan daiteke Central Parkek ekarri daiken turismoa, ezta?

Turismoa ez da bakarrik jentea erakartea, eta turismoak ez dau balio bakarrik hemengo sektore pribadu batzuei dirua emoteko. Turismoak bertakoai zerbitzu piloa emoten deutsez. Hemengo enpresak diru gehiago irabazten badabe, enpresa gehiago zabaltean dira eta horreek herrientzako zerbitzuak dira eta herriari bizia emoten deutesie. Herriak ikusi behar dau turismoak enplegua sortzean dauala. Eta ez hori bakarrik. Areatzako bainuetxea zabaldu danetik, enplegua bakarrik ez, zerbitzua emoten deutso herriari eta dirua ekarten dau. Eta enplegua sortu ezker, gazteak herrian geratu daitezke...

Fiturreko saria mugarrria izan leiteke Gorbeia Central Parkekentzat. Orain arteko ze balorazino egiten dozu?

Proiektua aurkeztu zan garaga-

"Turismoak bertakoai zerbitzu piloa emoten deutsez"



rrilaren 14ean, sei hilabete dira. Gure balorazinoa sano positiboa da. Alde batetik Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak baieztatu egin dabe kolaborazinoa proiektuagaz eta turismo sustapen ekintza guztietan Gorbeia agertzen da orain. Lehen ez zan egoten eta foileto askotan, publizidade kanpainen, turismo web publizidadean eta telebistan be ez. Orain, barriz, Gorbeia eskeintza turistiko guztietan dago. Lehen sei hile honeek, sustatu, kokatu eta promozionetako izan dira. Hurrengoetan, barriz, merkaduan sartu behar dogu, enpresak eta ekintzak zabalteko. **Beste proiekturik badozue?** Gorbeia Central Park proiektua ez da daukagun proiektu bakarra.

Aurten proiektu barriak zabalduko doguz. Sektore pribadu eta publikoari zabaldu gura deutsegu partizipazinoa, eta horretarako, Turismo Mahai Ofiziala sortu dogu. Hor sektore publiko eta pribaduko partaideak ofizialki dagoz lotuta Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteagaz eta mahai azpi sektorial batzuk sortu dira, eskualdeko foroak, hain zuzen. Foro horreetan edozein personak, enpresak zein udalek turismoaren gaineko ideak eta proposamenak eroan daitezke.

Orain gastronomia lantzean hasiko gara. Hori izango da gure hurrengo proiektua, gastronomia natureagaz lotuta, eta, ostean, kultura proiektu bat zabalduko dogu.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)











• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.